

jokulariak 1 1 1

EUSKAL AKTOREEN BATASUNAREN BOLETINA
BOLETÍN UNIÓN DE ACTORES VASCOS
apirila/maiatza 2018 abril/mayo

IKUSENTZUNEZKO ETA ARTE ESZENIKOETAKO EMAKUMEEN LAN ETA IKUSGARRITASUNAREN BILA



(h)emen



111

apirila-maiatza
abril-mayo
2018
Azala
Logo (H)emen



10



12



06

SUMARIO

- 04 **En lo que estamos trabajando**
Comisión de Educación de EAB
- 06 **Emakumeen lana eta ikusgarritasunaren bila**
Eneko Olasagasti
- 10 **Zinegoak 2018**
Judit Lorenzo, Bego Guerrero y Ana Fur(r)ones

- 12 **Sorkuntza eta performancea Espe Lopezekin**
Amaia Irazabal
- 14 **Buscando la verdad con Maria Ripoll**
EAB

jokulariak



EUSKAL AKTOREEN
BATASUNAREN BERRIPAPERA

DONOSTIA
Portuetxe nº 23 A
4º Planta ofic. 4/08
20.018 Donostia
Tel. 943 31 48 22

BILBAO
Bilbo Eszena
c/ Juan de Gardeazabal 3
(entrada por c/Fica)
BILBAO 48.004
Tel. 944 33 37 86

admon@actoresvascos.com
eabbilbao@actoresvascos.com
www.actoresvascos.com

Koordinazioa, edizioa
Eneko Olasagasti
Maketazioa, diseinua
Iosune Fernández
Inprimategia
Antza
LG/DLSS168/2000

Gogoratu aldizkari hau denona dela eta gustura hartuko genituzkela zure iritsi eta artikulua.
Recordad que esta revista es de todos y que gustosamente recibiremos tus opiniones y artículos.

EN LO QUE ESTAMOS TRABAJANDO

A continuación, detallamos los objetivos que nos hemos marcado a partir de la propuesta sobre el Estatuto del Artista que se está debatiendo y tramitando en el Congreso de los Diputados. Estas dos líneas de acción son el desarrollo de una de las propuestas que se plasman en dicha propuesta y que tiene como punto de partida el concepto de Transición Profesional:

1. Modificación del Decreto del 92, con desarrollo en base a la ley del 2006, para que las escuelas municipales, que no ofrecen titulación, se conviertan en escuelas de artes, que impartan enseñanzas de música, danza y artes escénicas. Competencia de Gobierno Vasco.
2. Creación y aprobación de un Real Decreto que regule la Transición Profesional, a través del INCUAL, para poder acceder a una cualificación profesional y obtener el título de Técnico Medio y/o Superior. Competencia del Gobierno de Madrid.

ESCUELAS DE ARTE

Solo pretendemos que las escuelas de arte sean como en el resto de las de nuestro entorno, fundamentalmente europeo, que abarcan las disciplinas de música, danza y teatro, creando la base de un itinerario educativo que acaba en el nivel, equivalente a grado, de las escuelas superiores de artes de las distintas disciplinas ya señaladas.

Instituciones y agentes implicados

Departamento de Educación: personas responsables de esta competencia, Consejo asesor de música, Comisión de Ordenación Académica. Departamento de Cultura, LANBIDE. Asociaciones: de escuelas de música, bailarines/as, actores/actrices.

Marcos de referencia

Ley de 2006, Decreto de 1992 por el que se regulan las escuelas de música. En las Disposiciones Transitorias 7ª, 8ª y 9ª se hace referencia a la habilitación profesional para la docencia



Centre Cívic Cotxeres Borrel, Barcelona

en dichas escuelas. Estas disposiciones servirían de marco de referencia para incluir el teatro mientras se va efectuando el procedimiento del INCUAL, que dura seis años. A la espera de que se cumpla dicho procedimiento se puede utilizar el recurso de habilitación.

La memoria de presupuestos del Gobierno Vasco de 2017 contempla realizar la modificación del Decreto en 2018.

Objetivos concretos a corto plazo

1. Realizar reuniones con las asociaciones de implicados.
2. Incorporar al Consejo Asesor de Música a representantes de la danza y el teatro para que sea un agente activo en la redacción de la Propuesta de Decreto y en la habilitación del profesorado (criterios, competencias, etc...)
3. Realizar una propuesta unitaria de Decreto que regule a las escuelas de arte.
4. Enviarla a los departamentos responsables y diseñar los siguientes pasos.

TRANSICIÓN PROFESIONAL – INCUAL

(Instituto Nacional de las Cualificaciones)

Se trata de crear un itinerario para posibilitar la Transición Profesional creando las condiciones para acceder a un título de Técnico Medio y Superior y optar así a una empleabilidad, entre otras, en escuelas de arte y casas de cultura.

Instituciones y agentes implicados

INCUAL y el Ministerio de Educación, Cultura y Deporte. Departamento de Cultura. LANBIDE. Departamento de Educación. Dantzerti (Escuela Superior de Artes Escénicas del País Vasco). Consejo Estatal de las Artes Escénicas. (El director de Dantzerti es miembro)

Marcos de referencia

Como es difícil modificar la Ley de Educación vigente se opta por la fórmula de Real Decreto aprobado en Consejo de Ministros.

Como el proceso de cualificación se prolonga seis años se podría aplicar el proceso de habilitación del Decreto del 92 (solo música), pero para ello habría que modificarlo e incluir el teatro y la danza.


A la hora de crear una familia para nuestro ámbito del INCUAL se podría crear una nueva, o partir de la de servicios socioculturales a la comunidad estableciendo unos contenidos comunes. Los específicos serían los del propio ámbito de nuestra actividad, formativa y profesional. La acreditación de Técnico Superior entra dentro del Marco Europeo de Educación Superior (MECES 1 y MECES 2). Posibilita un itinerario formativo y profesional en Europa, incluso hacer Erasmus.

Contemplar los módulos, específicos también, de la enseñanza de Didácticas y Programación. Los contenidos que se imparten en las escuelas de teatro del nivel de las escuelas de música. Los contenidos que se imparten en el resto de niveles de enseñanza hasta llegar a los de las escuelas superiores de artes.

Objetivos concretos a corto plazo

1. Informar a los agentes implicados. En la Comunidad Autónoma y en el Estado.
2. Recoger información sobre los contenidos que se imparten en los distintos niveles para elaborar una propuesta de Cualificaciones.
3. Enviar información sobre los objetivos y el estado de trabajo a los sindicatos y asociaciones estatales. Y enviar la información a todos los diputados vascos en el Congreso de Madrid.
4. Dar continuidad a las reuniones ya realizadas.
5. Pedir comparecencia ante las comisiones correspondientes del parlamento de Gasteiz.
6. Realizar una solicitud formal al Gobierno Vasco para que pida agilizar la creación de un Real Decreto en Madrid.

Comisión de Educación de EAB



(h)emen



Bizkaiko Batzordea Naia Laka, Nere Flanagan, Itxaso Espinal eta Lara Izagirre

EMAKUMEEN LANA ETA IKUSGARRITASUNAREN BILA

Testua **Eneko Olasagasti**

Zer da (H)emen eta ze egitura dauka?

Elkarte bat da. Zuzendari batzorde eta bazkideez osatua, eta aurtengo asanbladan erabaki bezala hainbat batzorde sortu(ko) dira. Besteak beste, Bizkaiko batzordea; arlo bakoitza sakonago jorratu ahal izateko, funtzionamendu egitura horizontalizatzeko eta bazkideek aktiboagoak izateko aukera izan dezaten.

Noiz eta zergatik sortzen da (H)emen?

(H)emen 2016ko Martxoak 6an sortu zen helburu nagusi batekin: Ikus-entzunezkoetan eta Arte Eszenikoetan lan egiten duten emakumeei ikusgarritasuna ematea. Horretarako sortu zen doako online datu-baseak, azken 2 urtetan, 200 profesionaletik gora jaso ditu: kameralariak, soinu eta argi teknikariak, aktoreak, ekoizleak, editoreak, artezleak, zuzendariak, argazkilariak, gidoilariak, etab.

Ordutik hona ez dugu uste egoera asko aldatuko zenik. Zein da, orokorrean edo datuekin, ikus-entzunezko emakumeen lan egoera?

Datu ugari aztertu eta zabaldu da azken urteotan, Estatu mailan CIMAK aurkeztu izan ditu, Europan EWA-k. Euskal Herrian, 2016an Kulturaren Euskal Behatokiak, ikus-entzunezkoetan emakumeek duten presentziari buruzko azterketa kuantitatibo eta kualitatibo sakona egin zuen.

Laburbilduta esan daiteke, eremu guztietan errealitate antzekoak bizi direla. (Azken datuek berresten dute, adibidez, Europako film guztietatik bakarrik %20 zuzendu dutela emakumeek).

Emakumeak formazio bikaina dute ikus-entzunezkoetan, baina, hala ere, beraien presentzia nabarmen jaisten da profesionalizatzeko orduan. Hona, Behatokiko txostenean azaltzen diren datu batzuk:



- Lantalde teknikoetan, hamar lagunetik hiru dira emakumeak. Nolanahi ere, alde esanguratsuak aurkitu ditu azterlanak zereginerik erreparatuz gero eta, lan-kategoria jakin baten barruan, ardura-mailari erreparatuz gero.

- Ardura handieneko lanpostuei bideratuz gero, proiektu gehien gehienetan egiaztatzen da emakumeen presentzia gizonezkoena baino askoz ere txikiagoa dela. Zuzendaritzaren kasuan, nabarmena da gizonezkoen nagusitasuna: Antzeko joera hauteman da gidoigileen artean ere: kasurik onenean, emakumeak ez dira % 25era iristen. Labur esanda, gizonezkoek idazten dituzte eta zuzentzen dituzte produkzioak, oso gutxitan izan ezik.

- Lantalde artistikoa fikzioko produkzioei eta TV movies delakoei dagokie. Emakumeak gutxiengo dira paper-mota guztietan. Esanguratsua da haien proportzioa % 40ra jaitea protagonisten kasuan eta zerrendako paperen kasuan (% 41,9), eta % 25 ingururaino paper nagusietan eta bigarren mailakoetan (% 23,3 eta % 26, hurrenez hurren).

Behatokitako idatzitako bi lanak dira oso gomendagarriak, bai Miren Maniasek idatzitako txosten kualitatiboak bai Ane Muñozen iritzi-artikuluak, ederki kokatzen baitute gaur egungo testuingurua

Zein helbururekin eta zein da bere berezitasuna?

Hasieratik, Europako EWA Elkartearekin (Europa Women's Audiovisual network) harreman estua izan dugu, horrek begirada irekia izatera; eremu zabalaren perzeptzioarekin lan egitera eraman gaitu.

Ze arlotan hasi zarete lanean?

1. Datu-basea handitu eta ezagutaraztea izan da erronka nagusia.

2. Zine jaialdi ugariarekin kolaboratu dugu; bakoitzarekin adostutako formula propioarekin.

- Animako-en (Animazioko Zine jaialdian) bi urtetan izan gara ikasle Saileko epaimahaikide.

- Lekeitiko Euskal Zine Bileran, mahai-inguruak antolatatu ditugu sektoreko profesionalarekin. Baita omenaldia egin ere Kontxu Odriozola aktorearen oroimenean.

- Donostiko jaialdian, bere ibilbidea errekonozituz, (H)emen saria eman genion Liemi Izagirre, Arte Zuzendariari.

- Zinemaldian Gidoilariarekin batera bi urtez kolaboratu dugu "Euskal gidoi onenaren" sari ekitaldian.

- Donostiako Giza Eskubideen jaialdian (H)emen eko bazkideen lan hautatuekin saio berezia antolatu ditugu; gaiari lotuta dauden laburmetraiekin. Proiekzioen ondoren, ikusleekin eta zuzendariarekin solasaldia izaten da.

3. Euskal Herriko Elkarte profesionalarekin kolaborazioak eta akordioak egin ditugu: EAB, Gidolarien elkarteak, ESKENA, ATAE, IBAIA eta EPE-APV-rekin.

Eta zeintzuk dituzue buruan etorkizunari begira?

Hilabete honetan hasiko da, (H)emen-ek eta IBAIA-ak antolatu, eta EWA, EPE, Zine Eskola eta Kutxa Kulturaren kolaborazioarekin gauzatutako Ikus-entzunezko Nazioarteko ikastaroa (International Audiovisual Training):



Lekeitio Zine Bilera 2017, Iñaki Gomez, Iban del Campo, Maitane Carballo, Izaskun Arandia (H)EMENeko Lehendakaria, Jone karres (H)EMENeko juntakidea, Olatz Beobide (H)EMENeko juntakidea eta Aurora Iturrioz



- Lehenengo partea, Maiatzak 30, 31 eta ekainak 1ean izango da. Zinema ekoizteko Euskal Herrian, Estatuan eta Europan dauden diru laguntza publikoak nola bideratu, eta baliabide horien kuadeaketaren berri emango da. Era berean, Nazioartean gure filmak koprodukzioetan eta finantzazio pribatuekin ekoizteko tresnak erabiltzen irakatsiko da. Gizon eta emakumeei zuzendua.

- Bigarrena, urriak 9-10-11ean. Zine proiektuen Formakuntza eta Garapena. Europako 20 proiektu aukeratu dira (fikzio edo dokumentalak). Ikastaro honetan partehartzaile bakoitzaren proiektua garatuko da, *one-to-one* saio pertsonalizatuenez, DIY film banaketa modu desberdinak proposatzen dituzten tailerren bidez eta finantzaketa modu ezberdinei buruzko master-classes bidez.

Zergatik da interesgarria, eta beharrezkoa, bertako partaide izatea?

(H)emen ere, asko izateak indarra eta ikusgarritasuna emango digulako. Partaide andana osatuz gero, edozein kontratatzaileek proiektu bat hasteko aneak, ekipoak osatu edota burutzeko, datu-basea begiratzeari ezinbestekoa izango duelako. Eta gure helburuak sustatzeko, bazkide kopurua altua izatea, hainbat ekintza eta egitasmo bideratzeko lagungarria delako. Azken finean, emakume profesionaleri onurak ekar ditzakelako.

Ze onura ekar diezaioke partaideari

Bazkide izateagatik, iada, datu-basean sartzen da. Horretaz gain, bazkide osoa izan nahi badu, urtean 30€ ordainduz gero (desgrabatzeko aukera dago), onura zuzenak izango ditu: lan eskaintzak, ikastaroetan deskontuak, hilabeteko promozio perfila, elkarte batzuetan deskontuak (EWA eta Gidoilarien elkarteak), etab.

Bada beste gauza garrantzitsu bat, hainbat bilera eta ekintza egiten ditugu, horietan bazkideen lana aurkeztu eta sustatzen da, eta proiektu berrietan elkar kolaboratzeko sinergiak sortzen dira.

Mugimendu orokor baten parte zarete, sentitzen zarete? Ze harremanak dituzue mugimendu feministarekin

Emakumeen eskubideen aldarrikapena, eta generoa bera modu ez baztertzailer batean ulertzen duen edozein mugimendu sentitzen dugu gertu.

Esan bezala, indarrak batzeak guztion onura dakar, eta marea kolektibo horretaz at baditugu talde bakoitzak, berean propio egin beharreko aldaketa eta adostu beharreko neurriak. Oraindik ere emakumeak ez baikaude, ezta profesional arloan ere, beharko genukeen errealitatean.

Azken hamarkadetan, lortu da Ikus-entzunezko eskolatan emakume ugari izatea ikasle, baina lan mundura iristerakoan, emakumeen presentziak izugarriko behar-rakada bizi du, bereziki zenbait arlo teknikoetan, edota ardura handiko karguetan. Horrek ez dauka ez hanka ez buru; botereak hartutako posizio eta leku banaketen erakusle nabarmen bat besterik ez da, eta horri berdintasunetik eutsi behar zaio.

Antolatuta zaudete Estatu mailan? Edo beste maila batzutan? Badira zuena bezalako beste elkarteak? Zertan ari dira beraiek

Europan, EWA dago, Estatuan CIMA eta Katalunian Dones Visuals. Guztiakin bildu gara han edo hemen, baina hasierako bi urte hauetan EWA-rekin izan dugu harreman estuena eta kolaboratzeko aukera.

Etorkizun laburra? Aurrera begira?

Oraintxe bertan, Nazioarteko ikastaroarekin buru-belarri gabiltza, ondo biltzen baititu beharrezkoak ikusten ditugun hainbat puntu: Ikus-entzunezko emakumeak garapenean formatzea; sektorean emakumeen ikusgarritasuna sustatzea; profesionalekin kontaktuan jarri eta sareratzea; Ikus-entzunezko medioan emakumeen ikusgarritasun eta partehartzea haztea.

ZINEGOAK 2018



Forua, 28 de diciembre de 2017, 12:00 a.m. Recibo una llamada del EAB. La persona al otro lado me pregunta si me gustaría formar parte del jurado del Zinegoak 2018. Pregunto cuál es mi labor. “Valorar las interpretaciones de los largometrajes de ficción de la sección oficial y otorgar el premio a mejor interpretación protagonista y de reparto” me contestan. Acepto y cuelgo. 28 de Diciembre... vuelvo a llamar... ¿No será una inocentada, verdad? “Mmm, sería muy buena pero no tengo tanta maldad”. No me queda más remedio que creerlo.

Cuento toda esta tontería porque me gustaría, a nivel personal, dar las gracias por la confianza depositada en mi torpe criterio y en la seriedad que se me presupone en ese momento. Capítulo “Ego” finito.

Ahora trataré de exponer por qué tenemos Bego, Judit y yo, las miembros del jurado, que dar esas “gracias”.

Primero por la gran calidad humana de la organización, en su mayoría voluntarios, que tratan de sacar adelante todos los años los eventos que se realizan diaria y simultáneamente en los diferentes espacios que se plantean. No sé si volará algún jarrón en la oficina, pero tanto nosotras como el resto de jurados y asistentes no hemos recibido nada más que sonrisas, buenas maneras y respeto.

Segundo felicitar a los programadores por su trabajo porque es un curro intenso e invisible que mantiene el



Judit Lorenzo y acompañante, Ana Furonés, Miriam Martín en representación de EAB, Paul Guillén Director de Zinegoak, Bego Guerrero y acompañante

status del festival. La selección ha sido por una parte muy variada en cuanto a géneros, pero también en cuanto a tramas y realidades sociales expuestas sin menoscabo de la calidad en los filmes. Se agradece enormemente y hay que decirlo.

Tercero, y porque han sido para nosotras la cara más visible: a Pau Guillén, y sobre todo a Amaïur Armesto por estar siempre disponible y habérselo puesto todo tan fácil. Nos tenéis para lo que queráis. Nos tenéis en la hucha si nos queréis. Capítulo "Gracias" finito.

En cuanto a las películas, hemos de decir que nos han retado a duelo a base de guantazos en la cara. Nos ha agradado y mucho, como ya les hicimos saber, que las tramas principales de los trabajos no fueran la homosexualidad o la transexualidad en sí misma (salvo excepciones justificadas, por procedencia o situaciones concretas) ya que, como todo trabajo cinematográfico y artístico en general, son reflejo de la realidad social y, por tanto, ser homosexual o transexual no debe, en un mundo ideal, plantearse como problema, sino como una circunstancia más en la que sentirse reflejado si es el caso. Esperamos que cada vez haya menos filmes cuyas tramas principales se basen en ello, porque significará que algo va cambiando en nuestra vida cotidiana.

Así mismo, cuidar esto tanto como se cuida desde la organización creemos que es la llave del éxito de pú-

blico del festival. Abre el ratio de asistencia y abre las mentes de los desconocidos. Trabaja hacia y desde la normalidad, no puede ser de otra forma.

Además de "de estas cositas" que nos hemos encontrado por el camino, tenemos que hablar del nivel interpretativo, que es lo que nos ocupaba al fin y al cabo, y éste ha sido muy alto.

Aunque como jurado los dos premios finalmente se decidieron por unanimidad, como público hemos de decir que el nivel interpretativo ha sido tremendo: desde la naturalidad de la juventud e inexperiencia bien dirigidas, hasta las interpretaciones más virtuosas técnicamente y emotivas. Ha sido un lujo ser testigos de estos trabajos que desgraciadamente, sin la existencia del festival, serían imposibles de ver en las grandes salas. Capítulo "Impresiones Generales" finito.

Supongo que ahora y por último toca abrir el Capítulo "Labor como Jurado". Hay que ver los 12 largometrajes (algunos en casa, otros en las salas), aplicar criterio, valorar, anotar, revisar las fichas técnicas, pensar, consensuar y decidir. Vivir con angustia vital durante unos días pensando en si vas a tomar la decisión correcta, si tus compañeras han visto y aplicado lo mismo... Es que, si queréis saber más... hay que vivirlo.

Judit Lorenzo, Bego Guerrero y Ana Fur(r)ones
Jurado del EAB en Zinegoak 2018

SORKUNTZA ETA PERFORMANCEA ESPE LOPEZEKIN

EAB-ren Facebookean Esperen argazki bat. Pailazo-ileorde elektrifikatua buruan eta birramonarena zitekeen kamisoi luzeegia gora helduta, "jolas-ordua" onenean moztu diotenaren aurpegiaz, baina, hala ere, irribarretsu. Eta azpian idatzita: "Formakuntza Iraunkorra. Espe Lopez: Creación y performance".

Eta izena eman nuen. Astea hasteko modu ezin hobea. Goizeko hamarretan elkartu ginen berotzea gutxi kosta zitzaigun EABko gela hotzean. Espek bere burua aurkeztu zuen, eta berehala jarri gintuen gorputza atalez atal esnatzen. Gero, espazioaren jabe egiteko, ibili. Hara eta hona ibili, hala eta honela, begiradak topatuz, eta "egun on" keinu lotsati batzuk ere bai lehendik ezagutzen ez ginenen artean. Inprobisazio gero eta animatuago batean bukatu zen, eutsi ezin genituen algarra batzuk tarteko.

Pausako platano-mandarina-zigarro-pixa ostean, autorretratuak. Esperen esanetara mugikorrek hartu eta elkarri argazkiak atera genizkion. Horiek erabili ahalko genituen gure erretratua izango zen ekintza egiteko. Minutu batzuk bat-bi-hiru aldiz pentsatzeko, eta prest geunden. Edo ez. Edonola ere, hasi ginen, banaka-banaka, erakustea erabaki genuen gure zati-txoa besteen aurrean jartzen. "Horrelakoa ere banaiz, baina ez da hainbesterako ez?", "¡Qué saladal"... Polita izan zen, dibertigarria eta sendagarria.

Robert Filliou poeta eta artista frantsesak esan zuen "Arteari esker, bizitza artea baino interesgarriagoa da". Edota, "egiten duzuna egiten duzula (edo pentsatzen), egizu (pentsa ezazu) beste zerbaitekin. Ideia horri "etengabeko sorkuntza" deitu zion. Agian horri lotuta egin zuen berak ere autorretratuak. Hiru modutan egin zuen: "ondo egina", "gaizki egina" eta "egin ga-

bea", bere burua "gaizki egina" delakoan espezialista aitortuz. Guri ere berdin egiteko esan zигun Espek, egin berri genuena "ondo egina" zela kontuan hartuz. Zailena "egin gabea" egitea izan zen, noski, paradoxa baita bere baitan, zerbaitekin egin gabe. Baina, interesgarria ere iruditzen zitzaidan, kontzeptua bera, beste ikuspuntu ez hain ageriko batetik begiratzera bultzatzen zaituelako, "beste zerbaitekin" hori pentsatzera, alegia.

Klase amaierara helduta, etxeko lanak: poema bat eguneko. Hori gure asteeko eginkizuna.

Egunero poema bat sortzea ez da hain zaila, adi bazaude, baldin eta begiradak intentzio hori badu. Horri esker, astea, azalez kanpo zein barruko izkinak miatzen eman genuen, poemaren ehizan. Izan zitekeen hitzekoa, irudi bat, ekintza bat, ideia bat, era batera edo bestera material egin behar zenuena, geroago berreskuratu ahal izateko. Aste amaieran, bat aukeratu, objektu bati lotu, eta bideo bidezko aurkezpena egin genuen.

Kurtsoko bigarren egunean, hasierako beroketa eta inprobisazioak eta gero, nahi genituen poemak erabiliz performance laburra egitea proposatu zигun Espek, hamar minutuko prestaketarekin. Zirt edo zart, begiak itxi eta salto! "Harrikada hau egin daiteke?" galdetzen zidan parrez kontzientziaren ahotsak. Publikoaren erantzunak, berriz, baietz. Eta horrela pasatu ziren gure gorputzetatik poemaren testura arraro bezain gustuko guztiak. Absurdu, makarra eta bihurriak izan ziren, eta ikusi eta erakutsi genuenarekin harrituta, hurrengorako gogotsu ginen.

Misio berria, "Objektu politikoak". Etxean genituen hamar objektuen zerranda egin genuen, politikarekin



Amaia Irazabal

zerikusia zutenak, baina ez oso era nabarmenean. Eta alboan, komentarioren bat, lotura hori nolabait azaltzen. Nahi izanez gero, objektu guztiek izan dezakete zerikusia politikarekin baina lotura horretara iristeko bakoitzak duen pentsamendu edota ideien katea oso desberdina da. Aste amaieran, haietako hiru aukeratu eta "muero demasiado" izenburupean ekintza prestatu genuen.

Egunero poema bat egitearena bezala, ideia hau ere, Robert Filliourena da. Helburua heriotzari buruz jardutea da, baina eguneroko bizitzan oinarrituz. Ikuspuntu honetatik, bizitza, momentu, eginbehar, ekintza eta keinuen metaketa besterik ez dela jabetzen gara, eta nola hauen eraginez, gorputza pixkanaka eta ia konturatu gabe hiltzen doan. Gure egitekoa, beraz, hiru objektuekin hori islatuko zuen performancea sortzea. Aurkeztu genuenak bazuen umoretik, nahiz eta "zertaz ari naiz parrez?" esaten harrapatu zeure burua. Izaera kritikoa ere ekidin ezina zen, "politika" eta "heriotza" nahasteak nahi gabe dakarrena. Gutiziako momentuak, hortaz, sarkasmo eta umore beltz zaleontzat. Baina, batez ere, bakoitzaren barne munduan hori guztia nola egosi zen ikusteak izan zuten xarma. Abiapuntu bera genuen arren bide oso diferentetatik joan ginen, nortasunak ageriko ziren, esplizitu eta inplizituki.

Azken egunerako performance egileetan arakatu eta bat aukeratzea jarri zigun helburu Espek, gero besteei hitzeako aurkezpena egin eta bukaeran bere omenaldia litzatekeen ekintza burutzeko. Ordura arte Robert Filliou-rekin lanean egon ginen gehien bat eta ariketa honekin beste autore batzuk ere ezagutu genituen, azaletik bazen ere. Ana Mendieta, Hermann

Nitsch, Regina José Galindo, Sophie Calle, Tania Bruguera, Marina Abramovic besteak beste.

Omenaldiek asko erakusten zuten autorearen lana baina filtroa gurea zenez "bertsio" moduko batzuk ateratu ziren. Kristal batean zanpatutako aurpegi karminez gorritatua, gurutze bati lotutako untxi baten gorpua, autobus geltokian jendeari diskrezioz ateratutako argazkiak, ahoan gainezka egin eta lurrera isuritutako ardoa, artista beraren etxean egindako elkarriketa pribatua, txalo etenik gabeak, lurrera sartu nahi zuen gorputz biluzia... Kolore eta forma guztietako lanak izan ziren, probokatzailak eta ausartak, epel usten ez zaituzten horietakoak.

Amaiera polita gertatu zitzaion sorpresa eta bitxikeriaz beteriko formazioari.

Etengabeko sorkuntza, atseginez gidatu zigun Espek, hilabete osoan zehar, plazeretik eta dibertimendutik, performancea bere prisma eta bizipenetatik eskainiz, eta gure proposamenak esker onez hartuz eta mimatuz. Eta horrela, deskubritutakoarekin pozik eta bukatzearen penaz agurtu ginen, motxila beteta, gorputza arin.

Amaia Irazabal





BUSCANDO LA VERDAD CON MARIA RIPOLL

CURSO INTENSIVO INTERPRETACIÓN
DELANTE LA CÁMARA

- ▶ Junio: 8 (tarde), 9 y 10 (mañana y tarde)
- ▶ Casa rural Kaxkarre en Astigarraga
- ▶ 10:00-14:00 / 16:00-20:00 h.
- ▶ Precio 100€ (AISGE 70€)
- ▶ admon@actoresvascos.com

Hay algunas habitaciones para pernoctar dentro del precio del curso para los primeros que se apunten.

Se trata de un curso avanzado de Análisis del texto y Dirección de Actores para aportar las técnicas adecuadas de ensayo y posterior grabación de las secuencias que se escojan para trabajar en el taller en los decorados naturales de la casa rural.



Objetivos

- Crear herramientas para resolver y dar forma a una escena.
- Comunicación y relación con los directores
- Trabajar el momento a momento, a través de las líneas y el subtexto.
- Acceder al submundo de los personajes para encontrar su verdad y desvelar sus secretos.
- Demostración de técnicas de ensayo incluyendo improvisaciones y ejercicios de calentamiento.

El propósito final es estructurar y proporcionar al actor/actriz el lenguaje y las estrategias, para resolver cualquier situación tanto en el ensayo como en el rodaje de cine o televisión

Maria Ripoll, directora

Estudia en el American Film Institute (AFI) en Los Angeles. Con su primer largometraje *Lluvia en los zapatos*, gana el premio Mejor Guión en el Festival Internacional de Cine de Montreal, y el Premio del Público en el Festival de Sitges y en el Festival de Seattle. Es nominada a Mejor Dirección Novel a los Goya. En el 2001 dirige en Los Ángeles *Tortilla soup*, estrenada en USA con gran éxito de taquilla y obtiene 9 nominaciones a los premios ALMA. En 2003 dirigió *Utopía*, un thriller fantástico y su primera película en español y después *Tu vida en 65'* (2007) escrita por Albert Espinosa e invitada a varios festivales como AFI LA Film Festival y Festival Int. de Estocolmo etc. Periódicamente trabaja en publicidad para la productora Monkey Films de Barcelona y Milagro Films de Los Ángeles. También imparte cursos de Análisis de guión y Dirección de actores para el SGAE y Central De Cine. En 2013 Produce y dirige *Cromosoma cinco* documental y web-doc, para TVE. En 2014 dirige entre Bombay y Barcelona, *Rastros de sándalo*, película que obtiene Gaudi 2014 a la Millor Pel·lícula Catalana y los premios del Público en el festival de Montreal y Festival Cinequest, California.

Dirige *Ahora o nunca* y *No culpes a karma de lo que te pasa por gilipollas*, ambas con gran éxito de taquilla y seleccionadas por el Festival Internacional de Miami.

SINDIKATUKO TXARTELAREN BIDEZ JASO AHALKO
DITUZUN SERBITZUEN DESKONTUAK

**SERVICIOS EN LOS QUE PUEDES OBTENER
DESCUENTO CON EL CARNET DE AFILIACION**

GIPUZKOA

Academia de idiomas OUI	20%	www.academiaoui.com
Fotógrafo Mikel Martínez Etxezarreta	15%	www.mikelmartinez.net
Maquillaje y peluquería Ainhoa Eskizabel	15%	ainhoexki@hotmail.com
Tai Chi Chuan Eskola	15%	www.taichichuaneskola.com
Videos Zazpiterdi	15%	http://zazpiterdi.com/es
Videos Zumeta	15%	www.zumetavideo.com

BIZKAIA

Coach Yannick Vergara	20%	yannickv@hotmail.com
Librería de Artes Escénicas Yorick	5-15%	www.libreriyorick.com/teatro/
Maquillaje profesional Alicia Suárez	15%	www.aliciasuarez.net
Peluquería Glamuforia	15%	es-es.facebook.com/glamuforia
Videos Yolanda López de Heredia	15%	yolandalzhheredia@gmail.com

ANTZOKIKO DESKONTUAK

Alegria Dulantzi	0% Precios populares	www.alegriadulantzi.com
Arriaga Antzokia	25%	www.teatroarriaga.com
Barakaldo	50%	www.teatrobarakaldo.com
Donostiako Antzokiak	10%	www.donostiakultura.com
Elorrio	50%	www.arriolaka.eus/es
Gasteizko Antzokiak	20%	www.principalantzokia.org
Lobiano Kulturgunea (Ermua)	25%	www.ermua.es
San Agustin Aretoa (Durango)	25%	www.durango-udala.net/sanagustin
Oreretako Kulturgunea	10%	www.errenteria.net
Zornotza Aretoa	25%	www.zornotzaaretoa.net
Zumaia	50%	www.zumaia.eus/es

